# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3116

*721/2012 EBAZPENA, ekainaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Eduardo González Lombide jauna Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerente izendatzen da, eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzen.*

Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen lanpostua betetzeko deialdia ikusita, Zuzendaritza Nagusiaren martxoaren 15eko 203/2012 Ebazpenaren bidez egina (2012ko apirilaren 26ko EHAA, 82. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Eduardo González Lombide jauna deialdiko lanposturako aproposa dela, eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Kontuan izanik Eduardo González Lombide jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan Fakultatibo Espezialista Familiako Medikuaren 4368 zenbakiko plazaren titularra dena, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen lanpostua betetzeko izendatua izan dela.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Eta kontuan izanik, Gipuzkoako Osasun Barrutian Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua sortzen duen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakiaren Seigarren artikuluan xedatutakoa.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Eduardo González Lombide jauna Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerente izendatzea.

Bigarrena. – Hiru urtetarako den izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion momentutik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak.

Denboraldi hori igarotakoan, zuzendariak egindako kudeaketari buruz aldeko ebaluazioak badaude, beste hiru urtez luzatu daiteke lanpostu horretan segitzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

Hirugarrena.– Eduardo González Lombide jauna zerbitzu berezietako egoeran deklaratzea, izendatzen duten egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 7a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.